



Estoka

KONTOUR 1200- 1500 modelo

Matrikula zk.: 07438/2006

Estoka abiadura handian lana egiten duen tresna arriskutsua denez, beharrezkoa da segurtasun neurri bereziak hartzea, erabiltzean arriskua murrizteko.

Dokumentu honen xedea estokarekin eginiko lanak segurtasun baldintza egokietan egiteko arauak eta jarraibideak ematea da.

Makina zura eta antzeko materialak torneatzeko erabiliko da soilik, metal guztiak salbuetsita egonda.

Hautapen eskakizunak

Kontuan hartu beharreko dokumentazioa:

CE adostasun aitortpena edukitzea. 17/07/06.

Fabrikatzailearen edo hornitzailearen erabilera eta mantentze eskuliburua, merkaturatzen den herrialdearen hizkuntzan. Ekipoa fabrikatzailearen argibide eta espezifikotasunen arabera erabili behar da.

Alokairua izanez gero, kontratua.

Aldez aurreko egiaztapenak. Makinaren egoera

Konexio elektrikoek egoera onean egon behar dute.

Egiaztatu beti hargunearen tentsioa tresnaren ezaugarrien plakan adierazitako berbera dela.

Makinaren konexio larakoak erabiliko den korrante hargunerako balio behar du.

Ezin da larakoa inola ere aldatu. Ez erabili egokigailurik lur hargunea duten gailuetan. Dagozkien korrante harguneetara konektatutako larako egokiak erabiltzeak txikitu egiten du deskarga elektrikorako arriskua.

Makina konektatzen den instalazio elektrikoak etengailu magnetotermikoa eta disjuntore diferentziala eduki behar ditu, egoera egokienean.

Kontuz gailua ustekabean abiaraztearekin.

Langileak bete beharreko baldintzak



18 urtetik gorakoa izatea.

Osasun zaintzari dagokionez, lanpostuan aritzeko gaitasun agiria edukitzea.

Prestakuntza espezifiko egiaztatua.

Tresna erabiltzeko baimena.

Erabilera

Erabilera jarraibideak

Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira BETI fabrikatzailearen erabilera eta segurtasun jarraibideak. **Eranskina.**

Ez lan egin inoiz makinarako handiegiak edo txikiegiak diren piezekin.

Ez gaintitu gomendatutako abiadurak.

Erremintak muntatzean, zaindu bermatzeko eta eusteko azalera garbi daudela, guztiz lauak direla eta kalterik ez dutela.

Ziurtatu erremintak ongi orekatuta eta zorrotzuta daudela eta akatsik ez dutela.

Edozein lan egin aurretik, jarri zeron etengailua, eta itxi giltzarrapoz, makinatik aldendu behar baduzu.

Lan ingurua

Eduki lanpostua garbia eta ongi argizatua.

Lana egin oinarri sendo baten gainean, eta mantendu oreka beti. Horrela, hobeto kontrolatuko duzu erreminta elektrikoa ustekabe bat gertatuz gero.

Ez erabili erreminta elektrikoa leherketa arriskua dagoen tokian; hau da, erregai likidoa, gasa edo material hutsa dagoen tokian. Erreminta elektrikoaren txinpartek material hautsa edo lurrinak sutu ditzakete.

Prebentzio alderdi espezifikoak

Egin mantentze-lan egokia, eta egiaztatu tresna ondo dabilela. Ordezko pieza originalak erabili behar dira. Egiaztatu lur hargunea.

Ipini ondo oinak, oreka ez galtzeko.

Ez erabili erreminta atmosfera leherkorretan.



Ez erabili arropa nasairik, eraztunik, ordularirik, eskuetakorik, eta gorbatarik, eta bildu ilea.

Langilearen jarrera

Eskuak estokaren bolanteetan bermatu behar dira, inoiz ez bankadan, organ, kontrapuntuan, mandrilean edo lantzen ari garen piezan.

Arropek ongi doituta egon behar dute, botoiez edo kremailez leporaino itxita, poltsikorik gabe bularrean, eta gerrikorik gabe. Maukek eskumuturrari estutua egon behar dute, edo, bestela, jasota.

Estokan lana egitean, debekatuta dago ordularirik, eraztunik, eskumuturrekorik, katerik edo antzekorik eramatea.

Erremintak armairu egoki batean gorde beharko dira. Ezin izango da utzi erremintarik estokaren gainean, atzean, estalkiaren gainean, edo antzeko lekuetan.

Arriskuak

Ebakiak erremintekin. Harrapatzeak. Erreminta eta piezen jaurtiketak. Partikulen jaurtiketak. Zur hautsa arnastea.

Saihestu arriskuak, neurri hauen bidez: Estoka konektatu aurretik, egiaztatu piezen euskarriek beren eginkizuna betetzen dutela eta piezari bere kasa biratzea eragozten diotela. Euskarri mugikorra makina konektatu baino lehen jartzen da. Euskarri horren posizio aldaketa ororen aurrean, makina geratu behar da nahitaez. Hautatu piezaren ezaugarriekin bat datorren abiadura. Ez utzi inoiz estoka mugimenduan; itxuraz, geldirik dagoela ematen baitu. Ziurtatu, joan aurretik, makina guztiz geldituta dagoela. Ez galdu arreta makinekin lanean ari zaren bitartean.

Molduratzean, torneatzean eta taillaketatzean ez jarri inoiz eskuak mugitzen ari diren lekuetan. Makina martxan egonez gero, ez saiatu landutako piezak ateratzen, neurtzen edo garbitzen. Ez erabili zure lanari ez dagozkion makinak behar bezalako gaitasuna eta baimena eduki gabe. Ez erabili aire konprimatua, garbiketa lanetan. Erabili hautsa eta hondakin erauzgailuak.

Norbera babesteko ekipamendua

Langileak erabili behar ditu:

Segurtasun eskularruak, eskuak ez irristatzeko eta ebaki gutxiago egiteko.

Erabili babesteko betaurrekoak edo pantaila, proiektatutako partikulak saihesteko.

Belarri babesak.



Segurtasun oinetakoak

Erabili hautsaren aurkako maskara.



Beste arrisku batzuk

Broka ukitzea, ebakitze gunean.

Broka haustea eta egozte.

Zapaltzea, erremintaren gidetan eta zati mugikorretan.

Lantzen ari diren piezak egoztean zauriak egitea, piezak ongi ez finkatzeagatik.

Sute arriskua.

Zati gidariak ukitzea, egoera txarrean daudelako.

Makina erabiltzean hautsa harrotzea, erauzgailurik izan gabe.

Prebentzio mantenimendurako gida

Bete itzazu fabrikatzailearen erabilera eskuliburuan jasota dauden mantenimendu eta konponketa jarraibideak eta/edo abisuak.